


FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XVII. ASTEA



Donostian, 2006ko azaroan

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	3
2.	METODOLOGIA	4
3.	AHOZKO ERABILERA.....	5
	<u>3.1. Filmak.....</u>	5
	<u>3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak</u>	5
	<u>3.3. Ekitaldi nagusiak</u>	7
	<u>3.4. Aurkezpen prentsaurrekoak</u>	7
	<u>3.5. Prentsaurrekoak</u>	7
	<u>3.6. Jendaurreko zerbitzuak.....</u>	8
4.	IDATZIZKO MATERIALA	9
	<u>4.1. Liburuak</u>	9
	<u>4.2. Programazio liburuxka.....</u>	9
	<u>4.3. Programazio taula</u>	9
	<u>4.4. Beldurrezko astea euskaraz.....</u>	9
	<u>4.5. Eskuorriak, sarrerak, postalak,</u>	10
	<u>4.6. WEB orria</u>	10
	<u>4.7. Kartelak.....</u>	10
	<u>4.8. Prentsarako materiala</u>	10
	<u>4.9. Errotulazioa</u>	11
	<u>4.10. Komiki Jardunaldiak</u>	11
5.	ERAKUSKETA ETA ANTZERKIAK.....	12
	<u>5.1. Antzerkiak.....</u>	12
	<u>5.2. Erakusketak</u>	12
6.	ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK	13

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, Donostiako aisialdian eragina duten ekintza nagusietan hizkuntza erabileraren neurketa egin ohi du: Aste Nagusia, Jazzaldia, Zinemaldia eta Musika Hamabostaldia. Hau dela eta, Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren Astean azken urte hauetan bezala, aurten ere behaketa egin dugu.

Garrantzitsua da oso euskararen erabilera normalizatzea egunerokotasunean. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskaren presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Ostera ere, gogorarazi behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomi Erkidegoan eta, halaber, Donostiako udal ordenantzek euskarari ofizialtasun hau aitortzeaz gain, Udalak antolatutako ekintza guztietan lehentasuna izan behar duela esaten dute ere.

Beraz, Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren Astean antolatzen diren jardueratan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu Bagerak; hau da, Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren Astean euskararen presentzia normalizatzea.

2. METODOLOGIA

Azkeneko urte hauetan, 2002tik, urtez urte egin du BAGERA Elkarteak Zinema Astearen neurketa eta beraz, datu guztiak aurrean izan ditugu neurketa egin eta ondorioak ateratzerakoan. Asteak bere gain hartzen dituen momentu guztiak neurtzen saiatu gara. Filmen aurkezpenak, euskaraz azpititulatutako edota bikoiztutako film kopurua, programazio aurrerapenaren txostena, filmez filmeko gida, kartelak, e.a. neurtu ditugu besteak beste.

Behaketa aurrera eramateko orduan, bagerakideen laguntza ezinbestekoa izan da, halere, elkartetik kanpoko kolaboratzaileak ere izan ditugu. 8 lagun aritu dira datuak jasotzen, behaketa aurrera eramateko orduan.

Neurketa egiterakoan, hizkuntza erabilera 3 atal desberdinetan azaldu dugu eta kasu guztietan bi eletan egin zela adierazten dugunean, zehazki, euskaraz eta gaztelaraz egin zela esan nahi dugu:

a) Ahozko erabilera: Filmak, ekitaldi nagusiak, prentsaurrekoak, film emanaldietako ongi etorri eta aurkezpenak (ongi etorria, sarrerako lehen hitzak bezala eta aurkezpena pelikulen xehetasunak ematerakoan) eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan erabiltzen den hartzen dugu kontuan.

b) Idatzizko materiala: Idatzizko material ugari izaten da Astearen. Antolakuntzaren argitalpenak (filmez filmeko gida, programazioaren aurrerapen txostena, ...), kartelak, web orria, errotulazioak, e.a. izaten ditugu aztergai.

c) Erakusketak: Atal honetan Astearen baitan antolatzen diren erakusketetan egiten den hizkuntza erabilera neurtzen dugu.

3. AHOZKO ERABILERA

3.1. Filmak

Atal hau Zinema Astearen ekintzarik garrantzitsuenak dela gogoan izan behar dugu. Aurten, asteak 47 film luze eman ditu, horietatik 9 euskaraz azpititulatuak. Bestalde, 23 labur eman dira eta horietatik 13 euskarazko azpititulatuak izan dituzte. Emanaldi kopuruei erreparatu, 51 izan dira film luzeak, 7 euskaraz azpititulatuak eta bi euskaraz; beraz, euskaraz film luzeak emanaldien %17,5 izan da. Film laburren emanaldiak 39 izan dira horietatik 13 euskaraz azpititulatuak, hau da, %33,3.

Sailez - sail honakoak izan dira aurten eskainitako filmak eta euskarazko emanaldien kopurua:

- Film luzeak sail ofiziala: 24 film, 4 euskaraz azpititulatutako emanaldiekin.
- Film laburren sail ofiziala: 16 film, 13 euskaraz azpititulatutako emanaldiekin.
- Film labur Espainiarrak: 7 film, bat bera ere ez euskaraz.
- David Cronenberg saila: 18 film, 3 euskaraz azpititulatutako emanaldiekin.
- Berreskuratutako klasikoak: 3 film, bat bera ere ez euskaraz.
- Haurrentzako zinema: 2 film, biak euskarazkoak.

3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak

Ongi etorri eta aurkezpenak aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu ekitaldi batzuk film bat baino gehiagoren emanaldia izan arren (normalean, laburren bat lehenengo eta luze bat edo gehiago ondoren), gehienetan ekitaldi osoak aurkezpen bakarra izan duela.

Bagerak behatutako 21 emanaldietatik, gehienek, 9k (% 43), ez du aurkezpenik izan. Behatutako aurkezpenen gehiengoak gaztelera hutsez edo gaztelera eta frantsesez edo ingelesez izan dira. Bi elekan edo hiru elekan egindako aurkezpenak %16 izan dira. Ongi etorriak 11 izan dira (%52) horietatik 7 (%64) gaztelera hutsez, gainerakoak bi elekan.

Jarraian Bageraren laguntzaileek behatutako ekitaldi guztien xehetasunak adierazten dizkizuegu. Letrek ondokoa adierazten dute: E (Euskaraz), G (Gaztelera), I (Ingelese), F (Frantsese), J (Japonieraz), S (Suedieraz) eta HG (hizkuntzarik gabek).

Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren XVII. Astea

FILMEAREN IZENA	ARETOA	EGUNA	ORDUA	ONGI ETORRIA	AURKEZPENA	FILMEEN HIZKUNTZA	AZPITITULUAK
Moongirl	Antz. Z.	28	19:45	Bi eletan	Bi eletan	Ingelesa	Gaztelera
Violea la pescadora del mar negro	Antz. Z.	28	19:45	Gaztelera	Gaztelera	-	-
Severance	Antz. Z.	28	19:45	Bi eletan	Hiru eletan	Ingelesa	Gaztelera
Guide dog	Antz. Z.	28	19:45	-	-	-	-
Masters of horror: homecoming	Antz. Z.	28	23:00	-	-	Ingelesa	Gaztelera
Masters of horror: huella	Antz. Z.	28	23:00	-	-	Japonesa	Gaztelera
Masters of horror: cuento de haeckel	Antz. Z.	28	23:00	-	-	Ingelesa	Gaztelera
Nature's way	Antz. Z.	29	23:00	-	-	-	-
Black Sheep	Antz. Z.	29	19:45	Bi eletan	Ingel. / Gazt.	Ingelesa	Gaztelera
Eggs	Antz. Z.	31	19:45	-	-	Ingelesa	Gaztelera
End of the line	Antz. Z.	31	22:30	Gaztelera	Frants. / Gazt.	Ingelesa	Gaztelera
Les Morveaux	Antz. Z.	31	22:30	Gaztelera	Frants. / Gazt.	-	-
Ioni cogió su mono	Antz. Z.	31	00:30	Gaztelera	Gaztelera	-	-
La matanza de Texas: el comienzo	Antz. Z.	31	00:30	Gaztelera	Gaztelera	Ingelesa	Gaztelera
Delivery	Antz. Z.	1	00:30	-	-	-	-
Cousa Ruim	Antz. Z.	1	17:00	-	*	Portugesa	Ingel. / Gazt.
Forrest Dessert	Antz. Z.	1	17:00	Bi eletan	Gaztelera	Ingelesa	Gaztelera
Ils	Antz. Z.	1	22:30	*	-	Frantsesa	Ingel. / Gazt.
Morirás en 3 días	Antz. Z.	3	00:30	Gaztelera	Ingel. / Gazt.	Alemana	Ingel. / Gazt.
Still Life	Antz. Z.	3	00:30	-	-	Ingelesa	Gaztelera
Los abandonados	Antz. Z.	3	00:30	Gaztelera	Gaztelera	Ingelesa	Gaztelera

3.3. Ekitaldi nagusiak

Inaugurazio ekitaldiaren aurkezpena Aitzpea Goenagak egin zuen bi eletan. Bernie Wrighosonek saria jaso zuen eta horretarako Rebordinos igo zen, eta hitz batzuk egin zituen gaztelera. Javier Merino eta Lourdes Bediak ere parte hartu zuten eta gaztelera egin zuten. Bukatzeko, estreinako pelikularen aurkezpena egiteko filmaren zuzendaria igo zen eta gaztelera egin zituen hitz batzuk. Iazko inaugurazio ekitaldiaren eskema berdina jarraitu zen eta iaz bezala, gaztelera gailendu arren euskararen presentzia egon zen.

Klausura ekitaldia ere Aitzpea Goenagaren gidaritzapean izan zen, eta hemen ere bi eletan egin zuen. Santiago Segurak ere parte hartu zuen bideo konferentzia bidez, gaztelera. Tartean, Rebordinos atera zen eta gaztelera aritu zen. Sariak banatzerakoan, saridunek beren jatorriko hizkuntzan egin zuten eta gaztelera ez zen beste hizkuntza bat erabiltzean itzulpenak gaztelera egin ziren.

3.4. Aurkezpen prentsaurrekoak

Aurtengoan bi aurkezpen prentsaurreko izan dira. Lehena, aurkezpen ofiziala, eta bigarrena, euskarazko film berri emateko. Bietan hizlari nagusiak Ramon Etxezarreta eta Jose Luis Rebordinos izan ziren.

Aurkezpen nagusian, Ramonek hartu zuen hitza lehenik eta aurkezpen txiki bat eta Astearen programazioaren inguruan labur haritu zen euskaraz nagusiki. Ondoren Rebordinosek informazio gehiago eman zuen gaztelera. Galdera txandan gaztelera soilik erabili zen.

Euskarazko Astearen aurkezpen prentsaurrekoan euskara nagusi izan zen. Lehenengo azalpena eta luzeena Ramonek eman zuen euskaraz eta ondoren laburpen bat egin zuen gaztelera. Rebordinosek egindako hitzak gaztelera izan ziren.

3.5. Prentsaurrekoak

Atal honetan Zinema Asteko ekintzak aurkezteko egin diren prentsaurreko guztiak hartu ditugu kontuan, bai filmei buruzkoak, komiki jardunaldiei buruzkoak edota balorazioarenak ere. Balorazioarako prentsaurrekoa udaletxean egin zen eta aurkezpenerako egindako eskema berdina jarraitu zen. Gainontzekoak, Astearen zehar San Telmon egindakoak dira eta hauek desberdinak izaten dira.

Astearen zehar egindako prentsaurrekoetan desberdina izan da. Astearen arduradun batek ematen zion hasiera prentsaurrekoari, nahiko labur, eta hizkuntza erabilera prentsaurrekoa aurkeztu duen pertsonaren baitan egon da, gehienetan gaztelera izan dira. Ondoren gonbidatuaren baitan izan da erabilia hizkuntza, orokorrean gaztelera egin dute, eta atzerriko hizkuntza erabili dutenean itzulpenak gaztelera egin dira. Egindako galderak beti gaztelera izan dira eta erantzunak ere gaztelera egiten ziren, Cristobal Molon filmaren aurkezpenean izan ezik, honetan parte hartzaileak euskaldunak ziren eta

euskaraz egindako galderei euskaraz erantzun zitzaien. Gaztelera ez zen beste hizkuntza bat erabili denean itzulpenak beti gaztelera egin dira.

3.6. Jendaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugu neurtu nahi izan dugu.

Hainbat ekitalditan zeuden laguntzaileekin euskaraz egin ahal izan da, baina askotan lehenengo hitza gaztelera izan da, batik bat zinema sarreretan.

Bestetik, Kultur Udal Patronatura deitu izan dugunean, gaztelera izan da ia beti, deia hartzerakoan, lehenengo hitza eta ondoren ere gaztelera erabili behar izan dugu askotan.

4. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har Asteko antolakuntzari dagokion idatzizko materiala bi eletan edota hiru eletan idatzirik dagoela esan daiteke, nahiz eta zenbait salbuespen egon. Antolakuntzatik kanpoko materialean berriz ez dago euskararen arrastorik. Dena den, jaso dugun idatzizko materiala banan bana aztertu dugu:

4.1. Liburuak

4 argitalpen eskuratu ditugu:

- “Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren XVII. Astea”-ren liburuan, asteen zehar izango diren film eta bestelako ekintzei buruzko informazioa azaltzen da 118 orrialdetan. Lehenik, eskerrak emateko orrialde bat dago, honen beheko aldean Donostia Kulturaren egoitzaren helbidea eta Zinema Asteko lantaldeari fitxa teknikoa gaztelaraz daude. Ondoren, epaimahaiari buruzko informazioa dago hiru eletan. Jarraian, filmei buruzko informazioa hiru eletan dago eta izenburua jatorrizko hizkuntzan, baina, hala ere, alboan datorren fitxa teknikoak gaztelaraz daude soilik. Gainontzeko ekintzei buruzko informazioa ere hiru eletan dago. Informazioaz gain, hainbat iragarki edo filmen kartelak daude. Hamabost filmen kartel daude, hurren filmaren iragarkia bitan dago, batean euskara hutsez eta bestean bi eletan. Honetaz gain, 10 iragarle badira, bi eletan iragarki bat dago, gainerakoetan ingelesa eta gaztelera dira gehien erabiltzen diren hizkuntzak.

- David Cronenberg-en “Los misterios del organismo” liburua: 405 orrialdekkoa da eta gaztelera hutsez dago.

- “Flash-Back” III Komiki jardunaldiari buruzko liburua: Liburu guztia gaztelera hutsez dago biltzen dituen komikien dialogoak kontuan hartu gabe ere (gehienak ingelesez daude).

- “2000 maniacos” aldizkaria, 82 orrialdetakoa, gaztelera hutsez dago.

4.2. Programazio liburuxka

27 orriko liburuxka bat da. Azalean kartel ofiziala du, bi eletan eta antolatzaile, babesle eta laguntzaileekin. Kontrazalean, berriz, pelikula baten kartela dator gaztelaraz. Barnean, filma bakoitzaren azalpen labur bat dator, bi eletan, euskarak lehentasuna izanik eta testuak bata bestearen itzulpena dira.

4.3. Programazio taula

Triptiko formatuan, aste osoko programazioa modu grafikoan azaltzen da. Azalean kartel ofiziala dator hiru eletan eta kontrazalean filma baten kartela gaztelaraz. Informazioa guztia bi eletan dago.

4.4. Beldurrezko astea euskaraz

Asteen zehar euskaraz izango diren filma emanaldiak biltzen dituen liburuxka da. Azalean kartel ofiziala euskaraz azaltzen da Donostia izena izan ezik bi eletan baitago. Barruko orrietan, film bakoitzari buruzko informazioa euskaraz dago soilik. Atzean euskarazko filmen programazioa azaltzen da

Zinema Asteko babesle eta laguntzaile guztiekin. Ohar bat ere azaltzen da non testuak gaztelaratik itzuliak izan direla azaltzen den.

4.5. Eskuorriak, sarrerak, postalak, ...

Atal honetan Zinema Astearen inguruan sortzen den beste material idatzia biltzen dugu, kontuan izanik hau dela jende gehienarengana iristen den materiala.

Emanaldietarako eskuratu ditugun sarrerak oro har bi eletan egon dira, baita haurrentzako filmetako eta hasiera eta amaierako festen gonbidapenak ere.

Erakusketak iragartzen dituzten postalak oro har bi eletan daude.

Film luzeen, laburren eta fanzine lehiaketan bozka emateko tiratan, informazio gehiena bi eletan edo hiru eletan dagoen arren, "monstrómetro" gaztelarazko hitza erabiltzen da eta fanzineen kasuan ere izenburua gaztelaraz soilik dago.

4.6. WEB orria

Iaz bezala, interneteko ataria du Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren Asteak. www.donostiakultura/terror klikatu eta hiru hizkuntzetan egiteko aukera ematen da, euskara, gaztelera eta ingelesa, aipatutako ordenan. Informazio guztia hiru hizkuntzetan eskuratzeko aukera ematen du. Hala ere, euskarazko bertsioan sartu eta atal batean izan ezik, filmen fitxa teknikoak gaztelaraz daude.

4.7. Kartelak

Guztira 8 kartel desberdin ikusi ditugu Zinema Astearen zehar prentsaurrekoetan barne:

- Ofiziala: Hiru eletan ikusi ditugu kartel guztiak.
- Babesleena: prentsaurrekoetan ikusi izan dugu eta bertan antolatzaile eta babesleen berri hiru eletan agertzen zen.
- Komiki Jardunaldien kartelak hiru dira. Informazioa bi eletan dute hirurak. Izenburua, hiruetatik batek euskaraz dauka (Euskadi Fantastikoa II), besteak gaztelaraz (Berni Wrightson maestro del terror).
- Hiru erakusketa daude eta bakoitzeko kartel bat. Informazioa bi eletan dute baina hiruetan izenburua gaztelera nabarmentzen da.

4.8. Prentsarako materiala

Prentsaurrekoetan eta antolakuntzak utzitako kutxatilan eskuratu izan dugun materiala bildu dugu. Prentsa txostena, eguneko programazio txostenak, filma batzuei buruzko informazio txostenak, erakusketei buruzko informazio txostenak eta zenbait iragarki besteak beste. Oro har, bi eletan edo hiru eletan zegoen informazioa, nahiz eta batzuetan hutsuneak izan (fitxa teknikoak eta helbideak adibidez gaztelera hutsez zeuden).

Bestetik, e-posta bidez bidalitako prentsa oharretan, informazioa euskaraz eta gaztelaraz jaso zitekeen normalean, baina hutsuneak izan dira eta palmaresaren berri ematen zuen mezua adibidez, gaztelara hutsez jaso dugu.

4.9. Errotulazioa

Zine aretoetako edota erakusketa tokietako eta bulegoetako ateetan ipinitako ohar edo txartelak orokorrean bi eletan ikusi ditugu.

4.10. Komiki Jardunaldiak

Komiki Jardunaldien programazioa azaltzen duen 8 orritako liburuxka bi eletan dago, bata bestearen itzulpena da.

5. ERAKUSKETA ETA ANTZERKIAK

5.1. Antzerkiak

Behatutako antzerkietan ez da inongo hizkuntzarik erabili.

5.2. Erakusketak

Zinema Astearen inguruan egon diren sei erakusketak behatu ditugu, alde batetik komiki jardunaldien inguruan egondako hiruak eta bestetik Miracala Etxea, Toni Galindoren “Zure begientzat bakarrik” eta John Willie-ren mundua.

- Komiki Jardunaldien inguruan lau erakusketa antolatu dira. Oro har lauetan hizkuntza erabilera berdina izan da: kanpoaldean zeuden kartel nagusiak bi eletan zeuden eta baita testu nagusien barneko panelak ere. Hauetan euskarak lehentasuna zuen kokapenarengatik. Baina, barnean erakusten ziren komikietako testuak albo batetara utzita erakusleihatetako testuak eta oinak gazteleraz ziren asko, kontuan hartu gabe hainbatetan jatorrizko hizkuntzan zeuden izenburu edo izen propioak zirela.

- Beste hiru erakusketa ere izan dira: “Miracala etxea”, Toni Galindoren “Zure begientzat bakarrik” eta “John Willie-ren mundua”. Guzti hauetan, Komiki Jardunaldien erakusketetan bezala, kartel nagusiak bi eletan zeuden.

6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez-atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.

Ahozkoan eta filmetan erabilitako hizkuntzari dagokionean iaz emandako aurrerapausoak aurten mantendu dira, hau da, euskaraz azpigitulaturako filma batzuk sail ofizialekoak ziren eta beste batzuk David Cronenberg-en sailekoak. Film laburretan ere, sail ofizialeko 13 film euskaraz azpigitulatu eta batera proiektatu dituzte.

Film luzeetan kuantitatiboki euskarazko filma bat gehiago egon da, aurten haurren bi filmak euskaraz izan baitira. Film laburretan berriz, aurten gutxiago izan dira euskaraz azpigitulaturakoak.

Dena dela, zertan hobetua badago oraindik ere, ekitaldi nagusietan, aurkezpenetan eta prentsaurrekoetan euskararen presentzia oraindik ez baita behar bezain bestekoa. Inaugurazio eta klausura ekitaldietan euskararen presentzia egoteko ahalegina egiten da bi eletan egiten duen aurkezlearekin, nahiz eta oro har bi ekitaldietan gaztelera nabarmen nagusitzen den, gainerako interbentzioak (sari banaketak, esketxak, e.a.) gaztelera izaten direlako. Filmen aurkezpen gehienetan eta prentsaurrekoetan gaztelera euskararen gainetik jarraitzen du nabarmen.

Idatzizko materialari dagokionez, aurreko urteetako bide beretik egin da euskararen erabilera. Elebitasuna eta hiru eletasuna gailendu arren badira zuzendu beharreko batzuk. Batetik, Fanzine Topaketan euskarazkoak egon daitezen lan egitea. Bestetik, Asteak kaleratzen dituen argitalpenen artean ere elebitasuna lortzea.

Azkenik, **erakusketei** dagokienean, kartel eta panel orokorretan elebitasunerako joera dagoela esan daiteke. Honetaz gain, erakusketetan idatzitakoa oso gutxi izan arren, txarteltxoetan erabili denean euskararik ez da erabili.

Oro har, Bagerak positiboki baloratzen du iaz emandako aurrera pausuak aurten ere mantendu direla ikustea baina, oraindik ere zuzendu beharreko gauza asko daude beraz Bagerak ondokoa proposatzen dio Zinema Asteko antolakuntzari: dauden hutsuneak zuzentzea eta aurrera pausuak sendo mantendu ditzala. Txostenean azaltzen den bezala, urtero errepikatzen diren hutsuneei konponbidea ezar diezaiela, Zinema Astea euskararen normalizazioa lortzeari begira. Antolakuntzak badaki bide horretan Bageraren laguntza behar izanez gero, beti prest edukiko gaituela.



Donostiako
Euskaltzaleen
Elkartea